

Hiri-espazioa okupatzearen behin-behinekotasuna eta bilakaera : Espazio publikoaren moldagarritasuna merkatuen ibilbidean.

Laburpena: Espazio publikoetan sortzen dira elkarbizitzaren loturak, bertan gertaturiko behin-behineko aldaketen lekuko bilakatzen dira talde-memorian. Jarduera herrikoiek arrakasta lortzen dutenean, ordea, edozeinetara egokitzen den funtzionaltasun anitzeko espazio moldakorra alde batera utzi eta eraikin itxiak gailentzen dira diru-onuraren izenean. Horien gainbeherak irtenbide berriak eragiten ditu. Agian, etorkizuna espazio publikoaren berrirakurketan datza.

Abstract: Public spaces become witnesses of the collective memory of the temporary changes that occur in them, and there arise the bonds of coexistence. But when popular activities achieve success is left aside the multifunctional adjustable space and closed buildings prevail for economic benefit. The decline of these buildings brings new solutions. Perhaps the future is in the rereading of the public space.

Gako-hitzak: Espazio publikoa, azokak, merkatua, merkataritza-guneak.

Keywords: public space, fairs, markets, shopping mall.



Nerea Aranburu
Arkitektoa, master ikaslea EHU eta AANTD SLP arkitektura-bulegoko kidea.

Jasotze data: 2015-05-21 / Onartze data: 2015-01-20



Lursail pribatuetatik at dagoen guztia eremu publikotzat hartzen da. Hirigintzaren ikuspuntutik eta norberarenetik ere argi geratzen dira mugak: kaleak, bai oinezkoentzakoak baita ibilgailuentzakoak ere, eta jarduera publikoa eskaintzen duten eraikinak publikoak dira; ez, ordea, etxebizitzek eta jarduera pribatuek betetzen dituzten lursailak, horien ardura jabeagoaren esku dago, beraz, pribatuak dira.

Beharbada, guztion parte-hartzea bermatzen duten espazio zabalak direlako hainbat ekintzetarako bereziki leku aproposak dira herritako plazak eta kaleak (Lekuona, 2015). Herriaren kultura sortzen eta hedatzen laguntzen duten biltoki bilakatu dira historian zehar. Azken finean bertakotasunaren identitate-zeinuak munduari erakutsi aurretik bertan finkatu dira indarturik lau haizetara zabaltzeko. Gainera, jarduera espaziora egokitzeko behin-behineko elementuak dira erabilgarri, hala nola toldoak, postuak, hesiak, itxiturak, harmailak, etab; beharren arabera antolatzen dira jarduerak behar duen erabilgarritasuna lortzeko.

Espazio publikoaren behin-behineko erabilera

Munduan zehar non-nahi ditugu egokitzen horren sona handiko adibideak: Sienako Palioa, sanferminetako entzierroak, Bloemenmarkt (Amsterdameko loreen merkatua), Madrileko Erretiro parkeko liburu-azoka, Maratoiak, Aita Santuak ematen dituen meza jendetsuak...

Euskal Herrian ere begi bistan ditugu okupazioaren hainbat adibide: Ordiziako azoka, Tolosako Inauteriak, San Tomas eguneko azokak, Donostiako Gipuzkoa plazako liburuaren azoka, Donostiako haur-danborrada, korrika, kilometroak, Aste Nagusia, Ondarretako zaldi-lasterketak, etab.

Guztiak ez dute oihartzun bera, ez eta okupaziorako beharrezko lanabes eta material berak ere, baina guztiek dituzte jardueraren euskarri diren ezaugarri komunak: espazio publikoaren erabilera edo okupazioa eta jendearen partaidetza. Batzuetan, espazioa eta kudeaketa publikoak izaten dira; beste batzuetan, ordea, espazioa publikoa baina kudeaketa pribatua, hainbat urtetarako edo ekitaldi baterako emakidapean.

Behin-behinekotasuna da guztien ardatz eta era berean sailkatzeko bereizgarria; izan ere, Sienako Palioa edota Donostiako Danborrada egun bateko ekitaldiak dira, entzierroak edota Aste Nagusia, berriz, aste betekoak, hondartzako toldoak eta zezenketak udaldikoak, eta azokak, hilerokoak edo asterokoak.

Hondartza

Badira historian sortu zirenetik aldaketa gutxiarekin irauten duten ohiturak, lekukotasunaren ardatz bilakatu dira eta horrek zailtasunak dakarzkie edozein eraldaketa onartzeko. Hala nola hondartzako toldoak eta eguzkitakoak dira lursail publikoak zatikatu eta, era berean, erabilera pribatizatze behin-behineko modurik errazena. Hiriarren paisaiaren berezko irudi bilakatu dira egurrezko zutabeetara sokaz loturiko ehun zuri-urdinak. Herritar batzuentzat usadioa da, beste batzuentzat, ordea, gizarte-mailen arteko distantzia islatzen duen aldatu beharreko garai bateko irudia. Izan ere,



Irudia ~ Sienako Palioa, "Caccia ai tori nel Campo di Siena".
Egilea ~ Vincenzo Rustici, 1556-1632.

ohitura hori Donostian erregetzak uda pasatzen zuenean indartu zen (Larrinaga, 2003). Zehazki, 1845. urtean etorri zen lehenengoz Isabel II (Seguro, 2013; Galarraga eta Unzurrunzaga, 2002:141).

"En aquel tiempo a que me he referido no se conocían casetas de baños en la playa. En Unión de mi amigo Gabriel María Laffite ideamos hacer una y se procedió a su construcción; componiase de una plataforma cuadrilonga con pequeñas ruedas; armazón de listones y cerrada de lienzo blanco; no tenía ventanas; entraba la luz cenital, suprimiéndose la cubierta por innecesaria. Tampoco-había puerta; bastaba la abertura de la tela para que hiciera veces de entrada; fue la primera semi-caseta". Siro Alcaín (1843).

Beste ohitura askok sorreratik orain arte egokitzapen nabariagoak jasan behar izan dituzte irauan ahal izateko. Nahiz eta aldaketa horien zergatiak asko izan, gizarte-ongizateak eta kapitalismoak izan dute zerikusi zuzena jarduerak pribatizatzerakoan. Herrietako kaleetan eta plazetan ospea lortzen duten jarduerak jendearen ongizatearen izenean eraikin batean ixten dira, aldi berean, diru-iturri bilakaturak. Era berean, jarduera edo eraikin horiek oztopo bilakutzen dira hiriak handitzeko bidean; ondorioz, hirigintza bihurtzen da leku-aldaketa horien eragilea.

Zezenketak

Donostian, hainbat espazio eta eraikin publiko eta pribatu erabili izan dira zezenketarako. Lehendabiziko zezenketak, eraikitako espazio publikoa erabiliaz, plazan egiten ziren behin-behineko egiturak jarduerari egokituaz, hau da, harmailak, itxiturak, etab. Horren adibide dugu Konstituzio plaza. Kudeaketa publikoa zen, udalarena (Sada eta Sada, 2008:55). Kudeaketa pribatuko egurrezko zezen-plazak harresitutako herri-gunetik at kokatzen ziren: San Martin plaza (Galarraga eta Unzurrunzaga, 2002), Atotxakoa eta, geroago, Groseko Txofre zezen-plaza (Barrena eta Mirande, 1969).



Irudia ~ Iruñeko entzierroa.
Egilea eta Iturria ~ Wikimedia Commons Bernard bill5 CC BY-SA 2.5 (2004).

Ordain zezakeenak erosoago ikus zitzakeen zezenketak. Azken eraikin hori 1974. urtean eraitsi egin zuten hirigintza-arrazoak argudiatuta. Orain arte azkeneko plaza 1998. urtean eraikitako Illunbe zezen-plaza da. Eraikina udalarena da, hau da, jabetza publikoa eta emakida pribatua. Gaur egun, eraikin horri irtenbide duin bat eman nahian dabilta ordezkari publikoak; izan ere, hainbat saiakera jasan ditu dagoeneko: kontzertuak, saskibaloipartidak, zirkum emanaldiak, politika-ekitaldiak, etab. Baina udalaren esanetan ekonomikoki defizitarioa da instituzio publikoentzat eraikinaren mantenua.

Azoka publikoak / pribatuak

Orain arteko adibideak aisialdirako ekintzenak izan dira, baina beste horrenbeste gertatzen da premia-premiazko elikagaien salmentarekin, hau da, merkataritzarekin. Gizartearen ongizate ekonomikoaren joan-etorrietara egokitu behar izan dute merkataritza-guneek. Garaiko aginteek, erregealdiek, gizartea kontrolpean edukitzeko hiribilduak bultzatu nahi zituzten (Martin, 1993); horretarako harresien babesa eskaintzen zieten herritarrei. Horrez gain, biztanleak erakartzeko prozesu horretan hainbat aukera eskaini behar zitzaizkien hiribildura gerturatzeko, eta salmenta-aukera zen horietako bat. Horrela zen hiribilduen garaian: produktu freskoak hiri ingurutik ekartzen ziren hirira bertakoek eros zituzten, hiritarrek ez zuten mugitu beharrik. Erosotasunaren izenean gutxieneko egokitzapenak egiten ziren, norberarentzat behin-behineko salmentapostuak ezarriaz. XVIII-XIX. mendeetan, saltzaile eta erosle guztiak aterpean egon zitezten behin betiko estaldurak gehitzen hasi ziren, baita herri merkatu izeneko eraikin publikoak ere.

Tolosa

Erdibide horretako adibide ederrak dira Tolosako «Zerkausia» eta Berdura plazako metalezko egituraz osaturiko beirazko aterpeak. Zerkausia 1785. urtean (Martin, 1993) eraiki zen Plaza Zaharreko merkatua ordezkatzeko;



Irudia ~ Abordatzera!
Egilea eta iturria ~ Flickr Iñaki Beristain Agirre CC BY 2.0 (2009)



Irudia ~ Zerkausia, Tolosa.
Egilea eta iturria ~ Flickr Egizu Getxo Euskaldun Elkarte CC BY 2.0 (2008).

baina hura eraitsi egin zuten, eta 1899koa da gaur egun ezagutzen duguna (Martin, 1993). Oraindik, bertan ospatzen da produktu freskoen eta bertakoen asteroko azoka. Horrez gain, Tolosak baditu beste bi azoka: Berdura plazan, metalezko estaldura baten babesean loreen eta landareena, eta Euskal Herria plazan, arkupean eta plaza bera okupatzen duten postuak ezarrita, kanpoko produktuena eta ehun-gaiena. Espazio publikoa espezializatuta dago plaza bakoitzean duen eskaintzaren arabera. Gainera, bada herri berean «Mercado de Abastos» (Martin, 1993) izenez ezaguturiko eraikina, nahiz eta gaur egun sortze-erabilera alde batera utzi, eta barruko aldea eraberritu ondoren udal-haurtzaindegia izan. Agerian geratzen da Tolosak merkataritza-alorrean izan duen indarra, modu handi batean bere kokapen estrategikoari esker (Zabala eta Garmendia, 2007).

Ordizia

Beste adibide bat Ordiziako azoka da. Tolosak eta Ordiziak sorkuntza-urte bera dute: babes-plan estrategiko baten ardatza osatuaz, 1256. urtean Alfontso X.a «Jakituna»k eraiki zituen Segurarekin batera (Truchuelo, 2007). Beraz, herri-gune horiek erakargarriak bilakatu ziren; alde batetik, harresien babes bila zetozenentzat; bestetik, bai merkataritza-gune horietatik bizi zirenentzat bai eta bertan erosi behar zutenentzat ere. Izan ere 1268. urtean Ordiziako hiribilduak Gasteizko Forua jaso zuen, eta bertan adierazten denez, bertakoek askatasun osoa zuten altxor publikoari ezer ordaindu gabe onibarrak erosi, saldu eta edukitzeko.

Azoka herriak 1511. urtean jasan zuen sute suntsitzailearen ondoren hasi zen ospatzen; izan ere, Joana Eroa erreginak diru-laguntza ez ezik, eskubidea ere eman zion herriari asteazkeneko kontsumorako zergarik gabeko azoka egin zezan (Olaechea, 1970). Lehenago ere bazen azoka harresitutako herrian, baina gertaera horretan datza gaur egun oraindik egiten den azokaren sorkuntza. Eskubide horrek inguruko azokarik garrantzitsuena bilakatu zuen Ordiziako azoka, eta are gehiago, trena ezarri

zenean azokaren eremu-esparrua handitzea lortu zuen 1864. urtean¹. Ordura arte, eskura zituzten tresna eta materialekin eginiko behin-behineko salmenta-postuak ezartzen zituzten; eguralditik ehunez eginiko estalduraz babesten ziren. Eta arrakasta horren ondorioz, 1925. urtean, gaur dagoen hormigoizko egitura eraiki zen baserritarrak eguralditik babesteko asmoz. Hortik aurrera, astero, zehazki asteazkeneko, azoka egiten da kale nagusian kokaturiko hormigoizko egitura duen estalkiaren azpian.

Horrez gain, iraileko 3. asteko asteazkenean egiten da Euskal Herrian arrakasta eta ospea lortu duen bertako azokarik ezagunena. Egun horretan azokarako erabiltzen diren ohiko lekuak ez ezik, frontoia eta hainbat plaza eta kale ere erabiltzen dira. Hau da, azoka helburua duen espazioaz gain, espazio publiko gehiagoren behin-behineko okupazioa egiten da.

Horrek guztiak oinarrizko espazio publikoaren erabilera betetzen du. Aterpearen babesaren duten plaza edo kaleak dira, eta horiek dute jatorrizko espiritu bera, Ordizian bezala. Zerkausiak, ordea, aurrerapausoa egina du eraikin bihurtzeko; altxaerak eraikin itxia bilakatu dute.

Azoka egiturak gaur egun

Egitura eta eraikin horiek guztiak sortze-arrazoari garbia dute, merkataritzako beharrei eta eskaerei erantzuna ematea. Baina behin eraiki ondoren, erabilera anitzeko leku bilakatzen dira, eta eguraldia oso lagungarri ez den kokapen batean hainbat ekintzatarako erabilgarri bihurtzen dira. Hala nola Ordiziako Azokan ospatzen diren gainontzeko ospakizun eta jaiak ere ikusgai dira bertan: Santa Anako festetan ezkonberriek dantzatzen duten esku-dantza, txupinazoa, Euskal Jaien barne ospatzen den Sagardo Eguna, hainbat musika kontzertu, txistularien alardea, etab.

Tolosan ere Zerkausiak jasandako azken berregokitzapenaren

¹ El Diario Vasco (2014): Tolosa Goierri, <<http://www.diariovasco.com/tolosa-goierri/2014/08/14/legada-ferrocarril-ordizia-hace-20140814000519-v.html>>.



Irudia ~ Plaza Nagusia, Ordizia.

Egilea eta iturria ~ Wikimedia Commons Zarateman CCo 1.0 (2012).



Irudia ~ Mercado de San Miguel, Madril.

Egilea eta iturria ~ Wikimedia commons Beaudroit CC BY-SA 4.0 (2009).

ondoren hainbat jarduera jasotzen ditu: bazkari herrikoiak, garagardo-festa, Tolosa 2015 barne Word Café eztabaida, etab.

Merkataritza-guneak

Hala ere, gaur egun, azokak ez dira herrietako merkataritza-punturik indartsuenak; ia espezializatorik gabe denetarik salmentan duten azalera handiko izen komertzialeko supermerkatu ugari ditugu gure herrietako aldirietan. Beraien indarguneak dira: alde batetik, asteko sei egunetan norberaren lan-ordutegiari moldatzeko moduko ordutegi zabalak, eta, bestetik, autoz etxeko aparkalekutik erosketa-zentroko dohaineko aparkalekuraino joateko aukera. Merkataritza pribatuaren indarra eta merkataritza publikoaren gainbehera agerikoak dira edozein herritan.

Donostia adibide

Donostian, 90eko hamarkadan, argi geratu zen udal-merkatuko postuetara etortzen ziren baserriarrek pairatutako tratu iraingarria. Bretxaren kanpoko albo bateko beirazko aterpe batean birkokatu zituzten eta barruko aldea merkataritza-gune bihurtu. Udaleko diru-kutxaren mesedetan prostituitu zen eraikinaren sena. Baita munduan zehar euskal gastronomia ezaguna egin duen ikurra ere: bertako produktu freskoa.

Adibideak munduan zehar

Badira, munduan zehar, merkatu- edo azoka-eraikin horiek zaindu dituzten hainbat leku; gaur egun, hirien harrotasun eta modernitatearen zeinu bilakatu dira. Adibidez: Madrilgo «Mercado de San Miguel», «Mercado de San Antón» eta «Mercado de San Ildefonso». Baina horiek ahazturik dute betiko azokaren sena, hau da, erosteko ahalmena duten bisitari edo kanpotarrentzat azokaz mozturiko merkataritza-gune bilakatu dira. Betiko merkatuak, oster, hor diraute itzalean, ahal duten heinean sortze-ideologiari jarraituz: herritarrei eguneroko produktu freskoak eskaintzea. Azken horren eredu da «Mercado de la Boquería» Bartzelonan.

Ondorioak

Hirigintza-ikuspuntutik eboluzioa agerian dago: herrigunean sorturiko espazio publikoa erabiltzetik hiriaren kanpoko aldean neurri eginiko erabilera pribatuko eraikin publiko/pribatu berri batean sartzearainoko jauzi argia. Baina hirigintzan islatutako aldaketak eraldaketa soziologiko eta teknologikoen ondorio dira. Izan ere, jendeari, mugikortasuna dela-eta, denborak moztzen eta, batez ere, distantziak errazten zaizkio. Horiek guztiek eragin handia dute kultura-alorrean eta nola ez hirigintzan: herrigunetik jarduerak aldirira eramaten dira kaleak eta plazak hustuz.

Gainera, eraikinak espezializatu egiten dira, erabilera bakarrarentzat sortzen hasten dira. Lehen kalean eta atari zabalean egiten ziren ikustaldiak bakoitzarentzat sorturiko eraikinean bahitzen dira, adibidez: frontoiak, futbol-zelaiak, belodromoak, azokak, etab. Espazio publiko berean egiten ziren ekitaldiak, bakoitzak zuen bere programatze-tartea, bata bestean eraginik izan ez zezan, hau da, espazio publikoa erabilera anitzeko espazioa zen².

Baina espezializazioaren eta profesionaltasunaren eskutik espazio bereziak eta erabilera bakarrekoak gailentzen dira. Gizarteak geroz eta erosteko ahalmen handiagoa duenez, eskakizunak ere maila berean hazten dira. Baina eskaintzen den jardueraren gainbehera heltzen denean, kezka sortzen dira eraikinen etorkizunari buruz. Jarduera zehatz baterako

² Gomez Piñero, J. (2013): «Usos del suelo. Centro», Geografía e historia de San Sebastián, Ingeba. Donostia: «Como zona de una gran calidad ambiental, arquitectónica y urbanística, las actuaciones previstas por el PGOU para el Centro están encaminadas fundamentalmente a la preservación de sus características. Así, se ha llevado a cabo en la última década del siglo XX un Plan de Rehabilitación para el Casco Histórico, protección del patrimonio edificado, otro Plan de Reestructuración del tráfico, pensándose en la posibilidad de soterramiento de las vías de Eusko Trenbideak, y la implementación del Ensanche en el Área de San Bartolomé, Centro Cultural en la antiguo Pescadería (1999), y la posible ubicación de la estación de autobuses. De notable importancia es el plan de reordenación y renovación del Boulevard (1999) y Alderdi Eder (1998), actuaciones que, junto con las peatonalizaciones resultantes de la nueva ordenación del sistema viario, debería constituir un factor fundamental para la mejora de la calidad ambiental del Ensanche y de su atractivo comercial».



Irudia ~ Mercat de la Boqueria, Bartzelona.
Egilea eta Iturria ~ Flickr manuelforesv.



Irudia ~ Kermesse avec théâtre et procession
Egilea ~ Peter Brueghel II edo bere lantegia (16. mendea), Musées royaux des Beaux-Arts de Belgique.

sorturiko eraikinari zer erabilera berri eman?

Azken urteotan, globalizazioaren alde ilunen beldurrak zirikatuta, hainbat alde zaharretan eraberritze- eta bultzatze-plana dela-eta, komertzio txikiei babesa eman nahi izan zaie instituzio publikoen aldetik. Bestalde, krisi-garaiak ekarrita, diru-sarrerak lortzeko iturri bakarra bilakatu da norberaren ahalmen sortzailea; enpresa txiki berriztatzaileak sortu dira. Horrek guztiak indarberritu ditu alde zaharrak eta herriguneak eta erakarpin komertziala sortu beraiengan. Era berean, kaleak oinezkoentzat bilakatzeko udal-politika bultzatu da³, trafikoa eta horrek dakarkien kutsadura eta aparkaleku-beharra herrigunetik alboratuaz.

Beraz, herrigunea berriro ere elkarkidetzaren irudi bihurtu da; etxebizitzak, merkataritza eta aisiarako lokalak elkarrekin uztarturik bizi dira. Ireki da Saramagoren La Caverna eleberrian kontsumoaren menpe bizi den gizartearen iruditik urruntzeko bidea.

Agian kultur ekintzak falta dira herriguneeen paisaiak osatzeko. Izan ere, patrimonio-paisaiak ez dira eraikin hutsak, bizirik eta jarduerarik gabekoak, baizik eta ohitura, festa, azoka, kultura, jakintza-zentro eta abarren elkarbizitza ordenatuak. Horrek bideratzen du sormena eta bizikidetzia.

«Covent garden» Londreseko auzoak lortu du kontsumoaren menpe izateaz gain, kultura, kreaio-ekimenak, azokak, eta abar bere baitan uztartzea. Erdi Aroko herribildu bizi bilakatu da; bertako elkarkidetzak, nahasketa ordenatuak, ematen dio auzoari bizia; lekukotasunak du garrantzia.

3 Muñoz, F. (2011): San Sebastián, origen y desarrollo de una ciudad, Erein, Donostia [ISBN:978-84-9746-649-3], 96. or.: «Plaza de la Alameda, antes "Vieja". Hasta el año 1722 en que se abrió la actual Plaza de la Constitución, esta que nos ocupa era la única Plaza de la ciudad. En ella hacía ejercicios la tropa y se realizaban los festejos: en ella estaba la fuente pública y se hacía el mercado y se utilizaba para otros muchos usos propios de estos lugares públicos (...)».

Bibliografia

- Alcaín, S. (1896): *La playa y las casetas*, Iruchio-zar, Donosti berri.
- Barrena, E. eta Mirande, P. (1969): *Donostia/ San Sebastián. Historia. Edad Contemporánea*, Eusko Media Fundazioa, Auñamendi Eusko Entziklopedia, Bernardo Estornés Lasa Funtza.
- Galarraga, I. eta Unzurrunzaga, X. (2002): *Hiri zabalguenak Euskal Herrian*.
- Larinaga, C. (2003): «Un siglo de turismo de ola y ordenación del espacio urbano en España, 1830-1936», in Terceras Jornadas de Historia Económica, Asociación Uruguaya de Historia Económica (AUDHE), Simposio N° 22: Turismo, espacio y ciudad a partir del S. XIX. Hacia una visión Multidisciplinaria.
- Lekuona, G. (2015): «Espazioaren konkista», Bidasoko HITZA, 2015-03-02.
- Martin Ramos, A. (1993): *La construcción de Tolosa*, COAVN.
- Olaechea, J. (1970): *Villafranca de Ordizja*, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, Donostia-San Sebastián.
- Sada, J. eta Sada, A. (2008): *Historia de San Sebastián*.
- Seguro, C. (2013): «5.5. La actividad económica», Geografía e historia de San Sebastián, Ingeba, Donostia.
- Truchuelo, S. (2007): *La villa de Ordizja, tierra natal de Andres de Urdaneta*, Universidad de Cantabria, Euskonews.
- Zabala, F. eta Garmendia, J. (2007): *Monografía histórica de Tolosa, Eusko Ikaskuntza*.

///